

1. Argibide orokorrak

Biztanleria (2016):	13.519 biztanle
Zabalera:	195,22 km ²
Nafarroa2000ko zer eskualdetakoa:	Tutera (ikus mapa)
Udalerriak:	Tutera (1. eta 2. barrutiak)

2. Komunitatea eta osasuna

Tutera Mendebaldeko eskualde oinarrizkoko biztanleriaren piramideak erraboil itxura du; 30etik 55 urte bitarteko biztanleak dira nagusi, nahiz eta oinarrian talde franko agertzen diren. Tutera Mendebaldeko eskualde oinarrizkoak handienetakoak ditu jaiotza tasa (%12,2), 14-19 urteko ama duten jaioberrien tasa (%8,4), bakarrik bizi diren 80 urte edo gehiagoko emakumezko eta gizonezkoen etheen portzentajea (%45,7 eta %22,9, hurrenez hurren) eta muturreko pobrezia arriskuaren tasa (%13,0).

Tutera Mendebaldekoa dago emaitza hoberenak agertzen dituzten eskualde oinarrizkoen %25en artean, haurren obesitatearen prebalentziari dagokionez (%3,5). Kontrara, emaitza okerrenak agertzen dituzten eskualde oinarrizkoen %25en artean dago 6 hilabetetan amagandik edoskitzen duten haurrei dagokienez (%46,9), urteko kontrol erregistratua duten hipertentsiodunen

portzentajeari dagokionez (%51,7) eta gizonezko jaioberrien bizi itzaropenari dagokionez (78,7 urte).

Nafarroa2000 zonifikazioan Tutera Mendebaldeko eskualde oinarrizkoa Tuterako eskualdean dagoenez, aurrekoek gain, ondoko orrialdeko irudian agertzen dira Tuterari dagozkion adierazleak, bizimoduak, enpleguari eta ikasketak mailari buruzko inkestetatik aterak. Horien arabera, eskualdeko gazteen %33,5ek diote alkohol kontsumo intentsiboak egiten dituztela (*binge drinking*) eta %26,2k kontsumitzen dute tabakoa egunero. Tuterako eskualdeak emaitzarik okerrenak agertzen ditu lehen hezkuntzako ikasketetan maila gorenak dituzten gazteen portzentajeari dagokionez (%15,7) eta langabezia tasari dagokionez (%14,5).


3. Osasunerako baliabideak

Komunitatean osasunerako aktiboak daude, hau da, osasuna eta ongizatea mantentzeko eta sortzeko pertsonak, komunitateak eta herriek duten gaitasuna indartzen ahal duten baliabideak (salutogenesia).

[→ Ikus eskualdeko aktiboak mapa](#)

4. Adierazleen laburpena

Ondoko irudian agertzen dira, adierazle sorta baterako, eskualdeko balioak (puntu gorria) Nafarroako batez bestekoaren aldean (barra bertikala) eta Nafarroako eskualde oinarrizkoen multzoaren aldera. Adierazleen deskribapen zehatzagorik nahi izanez gero ikus daitezke haien [banakako fitxak](#), Behatokiaren webgunean.



Adierazleen iturria: 1-2: Bizit. Mugimendu Nat.; 3: Zentsua; 4: Bizit. Aktiboaren Ink.; 5: Errenta Estat.; 6-8: Errolda; 10-12: Naf. Gazteen Ink.; 13: Bizi-Baldintzen Ink.; 14-15: Botika Prest.; 9, 16-19: Oin.Osasun Lag.; 20-21: Naf. Osasun Pub. eta Lan Osas. Inst.

Tuterako eskualdeko adierazleak, Nafarroa 2000 zonifikazioaren arabera (NEI). Irudian adierazten diren balioen kopurua: 3., 4. eta 13. adierazleetan, 7; 10-12. adierazleetan, 6.

* Nabarmen desberdinak ($p < 0,05$) Nafarroako emaitzatik (bizimoduen, gaixotze-tasaren, osasun sistemaren eta heriotza-tasaren adierazleetarako egindako kontrastea).

1. Jaiotze-tasa gordina (%); **2.** Urteko ugalkortasun-tasa berariazkoa (%) 14-19 urteko ametan; **3.** 2. graduko ikasketak burutu ez dituzten 20-24 urteko gazteen %; **4.** Langabetuen % biztanleria aktiboaren aldean, 4 hiruhilekoko batez bestekoa; **5.** Etxeko guztien errentaren baturak pobrezia arriskuaren atalasetik behera egiten duenean, halako etxeetan bizi diren pertsonen % (kontsumo unitate bakoitzeko urteko diru-sarreraren medianaren %30, pertsonen banaketa hartuta. Pobrezia arriskuaren atalasea, 2015ean: 5.150 €); **6.** ≥ 65 urteko pertsonen %, 15-64 urteko pertsona guztien aldera; **7 eta 8.** Bakarrik bizi diren ≥ 80 urteko pertsonen %, adin horretan familiaren etxebizitzetan bizi diren guztien aldean; **9.** 170-190 egunetara partez edo osotara amagandik edoskitzen duten bularreko haurren %; **10.** Ohiko jardueran nahiz aisialdian jarduerara fisikoki urria edo batere egiten ez duten 14 - 29 urteko gazteen %; **11.** Azken 30 egunetan kontsumo trinkoa edo betekada (*binge drinking*) egin duten 14-29 urteko gazteen % (4 EUE edo gehiago emakumeen artean, eta 5 EUE edo gehiago gizonezkoen artean, bi orduz); **12.** Eguneroko tabakoa kontsumitzen duten 14-29 urteko gazteen %; **13.** Eguneroko tabakoa kontsumitzen duten ≥ 15 urteko pertsonen %; **14 y 15.** Azken urtean, talde hauetarikoren bateko 3 ontzi gutxienez kontsumitu dituzten pertsonen tasa doitu: N50B antsiolitikoak, N05C hipnotikoak eta lasaigarriak eta/edo N06A antidepresiboak (T. gordina: emakumezkoak 15,5 eta gizonezkoak 8,2); **16.** Obesitatearen prebalentzia doitu 0 - 5 urteko biztanlerian, OMEak haurren hazkunderako dituen patroien arabera definiturik (z-score >= +2); **17.** 2 motako diabetesa duten ≥ 20 urteko pertsonen prebalentzia doitu (T. gordina: 7,2); **18.** 2 motako diabetes izanik, azken urtean hemoglobina glikosilatua duten neurketa (HbA1c) izan duen biztanleriaren %; **19.** Azken urtean hipertentsioa diagnostikatu eta tentsio arteriala neurtu zaion biztanleriaren %; **20 eta 21.** Pertsona bat egungo heriotza-tasaren arabera ustez biziko den batez besteko urte kopurua.